


2021-2022 IKASTURTEA

# KONTINGENTZIA PLANA





## **AURKIBIDEA**

### **1. OSASUN NEURRIAK.**

- 1.1. ESKOLA IREKITZEKO BALDINTZAK.
- 1.2. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO NEURRIAK.
- 1.3. IKASTETXERA SARTZEKO ANTOLAKETA.

### **2. COVID 19-AK ERAGITEN DUEN EGOERAN APLIKATU BEHARREKO IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUM-A**

- 2.1. CURRICULUMAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK.
- 2.2. AGERTOKIAK.
- 2.3. GAITASUN SOZIO-EMOZIONALAK ETA TALDE KOHESIOA.
- 2.4. HEZKUNTZA PREMIA ESPEZIFIKOAK DITUZTEN IKASLEAK.
- 2.5. EUSKARA INDARTZEA.

### **3. TUTORETZA ETA HARREMANAK.**

### **4. OSASUN MENTALA ETA ONGIZATEA.**

### **5. ESKOLA ZERBITZUAK.**

### **6. LAGUNTZA ETA JARRAIPEN BATZORDEAK.**



## **1. OSASUN NEURRIAK.**

### **1.1. ESKOLA IREKITZEKO BALDINTZAK.**

- Beharrezkoak diren materialak: maskarak, hidrogelak, hidrogela banatzeko ontziak, termometroak, hondakinak biltzeko zabor ontziak... PRESTATU DIRA. Atezaina arduratuko da mantenuaz eta horniketaz.
- Garbiketa puntuetan, sarreran, komunetan, eskaileretan eta geletan, jarraibideak azaltzeko kartelak jarri dira (astero egiaztatuko da bere tokian jarraitzen dutela eta behar izanez gero berritu egingo dira).

### **1.2. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO NEURRIAK**

Ikastetxean arituko diren hainbat eragileri aplikatuko zaien prebentzio plana honakoa hau da:

#### **1.2.1. ADMINISTRAZIOKO LANGILEENTZAKO PROTOKOLOA**

- Administrazioko langileek etxetik irten aurretik tenperatura hartuko dute eta sukarra izanez gero, ikastetxean jakinaraziko dute eta etxean geratuko dira. Honez gain, COVID19arekin lotutako bestelako sintomak azalduko balituzte (dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, eztul,...) ikastetxearekin eta Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko dira eta ez dira ikastetxera etorriko.
- Ikastetxean dagoen denbora guztian maskara jarrita izan beharko dute.
- Kanpotik norbait datorrenean artatu aurretik eta ondoren hidrogelarekin eskuak garbituko dituzte.
- Leihatilara hurbiltzen direnekin ahal dela ez dute materialik partekatuko, eta ezinbestekoa bada ondoren desinfektatu egingo da.
- Gurasoren batek ikastetxera etortzeko asmoa adierazten badu, modu ordenatuan antolatuko da etorrera.
- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea SAIHESTUko dute.
- Norbaitek sintomak azalduko balitu, libre dagoen gela batean isolatuko da. Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko gara eta bere gomendioak jarraituko dira. Arnasa hartzeko zailtasunak izango balitu, 112 zenbakira deituko da.

### 1.2.2. FAMILIENTZAKO PROTOKOLOA

- Zuen seme-alabek, ikastetxera bidali aurretik, COVID sintomarik ez dutela ziurtatu. Hala nola; eztula, sukarra, dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, arnasa hartzeko zailtasuna... Aipaturiko sintomak izango balitu medikuarekin harremanetan jarri, etxean gelditu eta ikastetxeari jakinarazi. Ezin dute ikastetxera joan sukarra badute (>37°C). Horrek esan nahi du familiek ikastetxera joan aurretik tenperatura hartu behar dietela euren seme-alabei.
- Zuen seme-alabek (ikasle guztiek) izan beharko dute bere maskara, eskola egunean erabiltzeko higiene-baldintzak bermatuko dituen.
- Gurasoren batek ikastetxera gerturatzeko beharra badu, hitzordua eskatuko du ohiko bideak erabiliz eta maskara jarrita etorriko da. Norberak behar duen materiala ekarriko du (adb: boligrafoa...).
- Eskolara etorritakoan bertan adierazitako jarraibideak bete beharko ditu: hidrogelarekin eskuak garbitu, sartu-irteneko norantzak, mantendu beharreko distantziak...
- Familiak lankidetzen arituko dira ikastetxeak oinarritzko higiene-ohiturak babesteko eta errazteko helarazitako jarraibideekin, esaterako:
  - ikastetxeko seinaleak errespetatzea
  - maskara erabiltzea
  - eskuak garbitzea
  - aretoak aireztatzea
  - bizikidetza-talde egonkorreko kidea izatea
- Ikasle batek ikastetxean sintomak baditu familiari jakinaraziko zaio; beraz, kontakturako beharrezkotzat jotzen diren telefono zenbakiak eman beharko dira (bat baino gehiago ematea gomendatzen da).
- Ikasle batek etxean sintomak baditu, familiak tutorea jakinaren gainean edukiko du eta aldaketa esanguratsuak jakinaraziko dizkio.
- Familiak, ikasleak ikastetxetik kanpo egiten dituen eskolaz kanpoko jardueri buruzko informazioa emango dio ikastetxeari, trazabilitate-arrazoiengatik eskatzen bazaio.
- Ikasleen gurasoek edo tutoreek eremu emozionalari buruz egoki deritzoten informazio guztia helaraziko diote beren semearen edo alabaren tutoreari, eremu horretan COVID-19 testuinguruari lotutako gabezia/zailtasunen bat aurreikusten denean.



### 1.2.3. GARBITZAILEENTZAKO PROTOKOLOA

- Garbitzaileak, etxetik irten aurretik tenperatura hartuko du eta sukarra izanez gero, etxean geldituko da eta ikastetxean jakinaraziko du. Honez gain, COVID19arekin lotutako bestelako sintomak azalduko balitzaizkio (dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, eztula,...) ikastetxearekin eta Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko da eta ez da ikastetxera etorriko.
- Ikastetxean dagoen denbora guztian maskara jarrita izan beharko du.

- Ikastetxea garbitzeko materiala:

- Garbiketarako eskularruak.
- Ohiko detergenteak nahikoak dira, baina lixiba edo bestelako produktu desifentatzaileak ere erabil daitezke, betiere segurtasun baldintzetan.
- Garbiketarako ohiko produktuak.
- Poltsak jarriko dira zakar-ontzietan, gaitutako erabilera-esparruan eta bereziki komunetan.

- Garbiketa eta desinfekzioa:

Ikastetxeko objektuak eta ingurumen-gainazalak garbitu eta desinfektatu. Atentzio berezia jarri:

- Ate eta leihoetako heldulekuak.
- Eskaileretako heldulekuak.
- Argiaren etengailuak, telefonoak.
- Mahaiak eta aulkiak (astean behin garbitzaileek garbituko dituzte, gainerakoan, ikasleen arduraren izango da mahaiak eta aulkiak egunero garbitzea).
- Gela partekatuak (informatika, teknologia, laborategia, banaketa gelak ...).
- Ordenagailuetako teklatuak eta saguak.
- Komunak.
- Gela bakoitzean dagoen zakar-ontziko poltsa itxi, atera eta errefuxara bota. Kuboan poltsa berria jarri.
- Isolatzeko gela erabilia izan bada, desinfekzio zorrotza.

- Ikastetxearen aireztapena :

Egunero aireztatu behar dira gela guztiak. Garbiketa egiten denean leihoak irekita mantendu.

- Hondakinen kudeaketa:

Ikastetxeak ohiko hondakinen kudeaketa mantenduko du. Hondakinen kudeaketa zorrotzagoa izatea gomendatzen da, batez ere hondakinak erabiltzeko behar duten babesari dagokionez. Beti eskularruak erabili behar dira.

- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea SAIHESTUko du.

#### 1.2.4. IKASLEENTZAKO PROTOKOLOA

- Etiket irten aurretik tenperatura hartuko dute eta sukarra izanez gero ikastetxean jakinarazi eta etxean geratuko dira. Honez gain, COVID19arekin lotutako bestelako sintomak azalduko balituzte (dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, eztula,...) ikastetxearekin eta Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko dira eta ez dira ikastetxera etorriko.
- Errespetatu jarrita dauden seinaleak eta bertan jartzen duena egin.
- Ilogailua beharrezko kasuetan eta ahal dela bakarka erabiliko da.
- Ahal dela, ikasleak gela batean egongo dira talde mugimendua ekidinez eta irakasleak izango dira geletan zehar mugitzen arituko direnak.
- Ahal dela, geletako ateak ez dira erabat itxiko, leihoak bezala, aireztapen gurutzatua mantendu ahal izateko.
- Ikasle bakoitzak etiketik honako materiala ekarriko du:
  - Maskarak (derrigorrezkoa da ikastetxean dagoen denbora guztian jarrita izatea).
  - Norberaren erabilera bakarreko mukizapiak. Erabilera bakarreko mukizapiak gelan egongo den zakar- ontzian botako dira.
  - Lanerako beharrezkoa ikusten duen materiala: portatila kargatuta, aurikularrak, boligrafoa, koadernoak, kalkulagailua... (material hori pertsonala izango da, ezingo da partekatu).
- Ikasleak, gelara sartzerakoan, eskuak garbituko dituzte gel hidroalkoholikoarekin.
- Komunera klase orduan joango dira ikasleak, pilaketak ekiditeko. Banan banan joango dira irekita dagoen komunera. Ikasleek bere taldeari egokitutako komuna erabiliko dute eta irakasleak erabileraren erregistro orria beteko du. Sartzerakoan eta irteterakoan eskuak garbituko dituzte.
- Klase batetik besterako tartean gelan geratuko dira, gelaz aldatu behar ez duten kasuetan noski.
- Klaseak bukatzean, banaka irtengo dira agintzen zaien modura.
- Gakoa, eskuen garbiketa etengabea izango da eta begiak, sudurra eta ahoa ukitzea SAIHESTUko da.
- Eztula edo doministiku egiterakoan, ukondoa tolestu eta honen barrualdea erabiliko dute ahoa eta sudurra estaltzeko, maskara kendu gabe.
- Norbaitek sintomak azalduko balitu, libre dagoen gela batean isolatuko da. Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko gara eta bere gomendioak jarraituko dira. Arnasa hartzeko zailtasunak izango balitu, 112 zenbakira deituko da.
- Behin ikastetxean sartuta, markatutako norabidea erabiliko dute, eta gelan ahal den heinean banaka eseriko dira espazioak ahalbidetzen duen distantzia mantenduz. Gelaz



aldatu beharko balute, ikasleek bere material guztia aldean eramango dute eta uzten duten mahai eta aulkia garbituta utziko dituzte datorren hurrengo ikasleak erabili ahal izateko.

#### 1.2.5. IRAKASLEENTZAKO PROTOKOLOA

- Ikastetxe barruan pasabideetako norabideak errespetatu behar dira.
- Etxetik irten aurretik tenperatura hartuko dute eta sukarra izanez gero ikastetxean jakinaraziko dute eta etxean geratuko dira. Honez gain, COVID19arekin lotutako bestelako sintomak azalduko balituzte (dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, eztula,...) ikastetxearekin eta Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko dira eta ez dira ikastetxera etorriko. Medikuari diagnostikoa lortzea komenigarria da.
- Jarrita dauden seinaleak errespetatuko dituzte eta bertan jartzen duena egingo dute.
- Ahal dela, geletako ateak ez dira erabat itxiko, leihoak bezala, aireztapen gurutzatua mantendu ahal izateko.
- Atsedendian ate eta leiho guztiak irekita utziko ditugu, gelak ondo aireztatzeko.
- Derrigorrezkoa da ikastetxe barruan maskara jarrita edukitzea.
- Irakasle bakoitzak erabiliko duen materiala ahal dela ez da partekatuko. Partekatzen dena, erabili ondoren desinfektatu (ordenagailuak, mahaiak, grapagailua.... ).
- Ikasleekin materialik ez partekatzea gomendatzen da. Teknologia Tailerra, Laborategia,... bezalako geletan materialaren erabileran begirune berezia izango da.
- Gorputz Hezkuntzako materiala erabili ondoren desinfektatu beharko da. Gel hidroalkoholkoa izango dugu saioa bukatu ondoren eskuak garbitzeko. Aldagelak ezin direnez erabili, ikasleak klase egunean kirol jantziarekin etorriko dira eta etxean duxatuko dira.
- Ikastetxeko esparruan sartzetik ahal den heinean distantziak mantenduko dira.
- Ikastetxean sartzeraoan gel hidroalkoholikoarekin eskuak garbituko dituzte. Gakoa, eskuen garbiketa etengabea izango da.
- Klasea hasi aurretik irakaslea gelan egongo da ikasleen zain, ikasleak pasabideetan elkartu ez daitezten. Zaintzako irakasleek ere pasabide eta gunen desberdinen zaintzaren ardura eramango dute.
- Ikasleek bere taldeari egokitutako komuna erabiliko dute eta irakasleak erabileraren erregistro orria beteko du.
- Ikasleei arauak betearaztea denon ardura izango da. Horretarako irakasle eta zuzendaritzaren arteko koordinazio lana ezinbestekoa izango da.
- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea SAIHESTUko da.
- Norbaitek sintomak azalduko balitu, gela aireztatu batean isolatuko da.
- Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko gara eta bere gomendioak jarraituko dira. Arnasa hartzeko zailtasunak izango balitu, 112 zenbakira deituko da.



#### 1.2.6. ATEZAINARENTZAKO PROTOKOLOA

- Atezainak etxetik irten aurretik tenperatura hartuko du eta sukarra izanez gero, ikastetxean jakinaraziko du eta etxean geratuko da. Honez gain, COVID19arekin lotutako bestelako sintomak azalduko balitu (dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, eztula,...) ikastetxearekin eta Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko da eta ez da ikastetxera etorriko.
- Derrigorrezkoa izango da ikastetxean dagoen denbora guztian maskara jarrita izatea.
- Gela guztietan eta irakasle gelan gel hidroalkoholikoa eta erabilera bakarreko mukizapiak daudela ziurtatu eta komunean, xaboia, papera eta zakar- ontzietan poltsak daudela.
- Ikastetxeko sarreran atezaina egongo da kanpotik datorren edonork prebentzio neurriak bete ditzan.
- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea SAIHESTUko dute.
- Sintomak azalduko balitu, egokitutako gelan isolatuko da. Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko gara eta bere gomendioak jarraituko dira. Arnasa hartzeko zailtasunak izango balitu, 112 zenbakira deituko da.

#### 1.2.7. JANGELAKO LANGILEEN PROTOKOLOA

- Jangelako langileek etxetik irten aurretik tenperatura hartuko dute eta sukarra izanez gero, ikastetxean jakinaraziko dute eta etxean geratuko dira. Honez gain, COVID19arekin lotutako bestelako sintomak azalduko balituzte (dastamena eta usaimenaren galera, beherakoa, eztula...) ikastetxearekin eta Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko dira eta ez dira ikastetxera etorriko.
- Derrigorrezkoa izango da ikastetxean dauden denbora guztian maskara jarrita izatea.
- Begiak, sudurra eta ahoa ukitzea SAIHESTUko dute.
- Norbaitek sintomak azalduko balitu, egokitu dugun gelan isolatuko da. Osasun Zentroarekin harremanetan jarriko gara eta bere gomendioak jarraituko dira. Arnasa hartzeko zailtasunak izango balitu, 112 zenbakira deituko da.





### 1.3. IKASTETXERA SARTZEKO ANTOLAKETA IKASLE ZEIN IRAKASLEENTZAT

- SARRERA ETA IRTEERAK MAILAKATUAK izango dira

TALDEA	SARRERA	IRTEERA
DBH-1A	8:10	14:10
DBH-1B	8:10	14:10
DBH-2A	8:10	14:10
DBH-2B	8:10	14:10
DBH-3A	8:15	14:15
DBH-3B	8:15	14:15
DBH-4A	8:15	14:15
DBH-4B	8.15	14:15

Ikastetxean sartzerakoan, eskuak gel hidro-alkoholikoarekin garbituko dituzte.

Behin ikastetxean sartuta, markatutako norabidea erabiliko dute, eta gelan banaka eseriko dira espazioak ahalbidetzen duen distantzia mantenduz. Gelaz aldatu beharko balute, ikasleek bere material guztia aldean eramango dute eta uzten duten mahai eta aulkia garbituta utziko dituzte datorren hurrengo ikasleak erabili ahal izateko.

- ATSEDENALDIA: 11-11:30
  - DBH1 - DBH2: Hauek izango dira erabilgarri izango dituzten espazioak:
    - Kirol gunea: saski baloiko zelaia, futboleko zelaia
    - Frontoi berria
    - Beheko frontoia

1.eta 2. DBHko atsedenaldian zaintzako irakasleak zonalde ezberdinetan segurtasun neurriak betetzen direla bermatzeaz arduratuko dira. Gune bakoitzean zaintzako irakaslea egongo da ikasleen arteko jokaera arriskutsuak ekiditeko.

Ezingo dira kontaktuko jolasak praktikatu. Maskara derrigorrezkoa izango da eta gutxienerako distantzia mantentzea gomendatuko da.

Atsedenaldietan komunen erabilpena debekatuta egongo da. Klase orduetan, eta banan banan, komunera joateko aukera izango dute.

Atsedenalditik eskolara sartzean eskuak gel hidro-alkoholikoarekin garbituko dituzte.

- **DBH3 - DBH4**

Maila hauetako ikasleek baimena izango dute ikastetxeko eremutik irtetzeko; beraz, geletatik banan banan eta modu ordenatu eta lasaian aterako dira eta bueltatuko dira. Distantzia mantentzea gomendatzen da eta maskara une oro jarrita mantentzea derrigorrezkoa izango da. Atsedenalditik eskolara sartzean eskuak gel hidro-alkoholikoarekin garbituko dituzte.

## 2. COVID 19-AK ERAGITEN DUEN EGOERAN APLIKATU BEHARREKO IRAKAS-IKASKUNTZA PROGRAMAK ETA CURRICULUM-A

### 2.1. CURRICULUMAREN FUNTSEZKO ALDERDIAK

- Mintegi guztietan programazioetan lehenengo saioak ikasleen diagnostikoa egiteko aurreikusita daude. DBH1eko ikasleekin, gainera, iraileko lehenengo asteetan baliabide digitaletan trebatzeko saioak aurreikusita daude.
- Curriculumaren funtsezko alderdiak lantzeko Berritzegunetik bidalitako dokumentua mintegiek eskuragarri dute programazioetan behar diren egokitzapenak egin ahal izateko, edukietan zein ebaluazio irizpide eta adierazleetan.
- Egungo egoera dela eta, 19/20 ikasturteko esperientziatik abiatuta, irakasleen beharrak asetzeko, Classroom, Meet, eta beste hainbat tresna digitaletan trebatzeko formakuntza saioak antolatu dira.

### 2.2. AGERTOKIAK

Irakaskuntza programa nola antolatuko dugun aztertuko dugu atal honetan. Agertoki ezberdinak kontuan hartu, eta hauei nola egokituko garen planifikatuko dugu. Agertoki ezberdin hauek, hiru taldetan sailkatuko ditugu:

- 1. AGERTOKIA: nagusiki irakaskuntza presentziala aurrikusten duena.
- 2. AGERTOKIA: Egoera mixtoa aurrikusten duena, non aurrez aurreko irakaskuntza eta ez presentziala edo on-line aurrikusten diren.
- 3. AGERTOKIA: nagusiki irakaskuntza ez presentziala edo on-line aurrikusten duena.

Konfinamendu garaian garatu ditugun jarduerak eta prozedurak aztertu ondoren, aurrera eramandako praktika onak identifikatu eta hobetzeko arloak zehaztu ondoren, edozein agertokitan gaudela ere, ikasturte hasieran, hainbat alderdi kontuan hartuko dira:

1. **Ikasleen diagnostiko egoki bat egin beharko da ikasturte hasieran.** Hauek **bai akademikoki eta bai emozionalki** nola datozen aztertu beharko da.
2. Curriculumaren funtsezko alderdiak aztertu beharko dira eta beharrezkoak diren **egokitzapenak egingo dira programazioetan.**
3. **Programazioetan definitutako ebaluazio irizpide eta adierazleak berrikusiko dira, eta,** behar denean, **egokitu** egin beharko dira, bai aurreko ikasturteko funtzionamendua ez delako izan egoera normal batek baimenduko lukeena, baita 20-21 ikasturterako egoera ezberdinak aurrikusi behar direlako ere.

4. Ikasleen **on-line ikasteko baliabide**, gaitasun eta modu egokiak **bermatu** beharko dira.
5. Irakasleen artean, **adostu** egin beharko da nola bideratu behar den ikasleen ikaskuntza prozesua eta honen jarraipena.
6. **Ikasgai guztietan** Classroom bat sortuko da, non ikasgai guztiak modu ordenatuan jarraitu ahal izango dituzten ikasleek.
7. Ikasleak etxetik arituko balira lanean, **ikastetxean daukaten ordutegia jarraituko dugu beraiekin**. Ordutegi horretan izango ditugu lanean, beti ere, saio horretan lantzeko moduko jarduerak aurrera eramanez. Komenigarria da ikasle hauekin on-line harremana mantentzea maiztasun batekin, beraiekiko gertutasuna mantentzeko eta ikaskuntza prozesua antolatuagoa izate aldera.
8. **On-line lanean** aritzea tokatzen zaigunean ere, ikasleen arteko kooperazioa sustatuko duten estrategiak planifikatu beharko ditugu.
9. **Modu mixtoan lanean** arituko bagina, hau da modu presentziala eta on-line modua partekatuz, mintegian ikasgaia presentzialki lantzeko lehentasunak jarri beharko dira eta era telematikoan ze motatako eduki eta jarduerak landuko diren adostuko da.
10. **Irakasleen koordinazioa** inoiz baino garrantzitsuagoa da une hauetan, beraz, tutoreak informazio esanguratsu eta eguneratua izateak izugarrizko garrantzia hartzen du. Hau bermatzeko, tutoreak beharrezkoak ikusten dituen GIT-ak deituko ditu.
11. **Familiekiko lankidetzak** ere, izugarrizko garrantzia hartzen du egungo egoeran. Tutorearen bitartez eramango da aurrera batez ere prozesu hori, baina beti ere, tutoreak informazioa bere osotasunean izan beharko du. Horretarako erabiliko dugun tresna, Inikako “jakinarazpenak” izango da.

## 1 AGERTOKIA:

Egoera honetan egoteko aukera izango bagenu, dokumentu honetan agertzen den segurtasun protokoloa aurrera eramanez, ahalik eta kalitate hobereeneko irakaskuntza eskainiko genuke modu presentzialean.

## 2 AGERTOKIA:

Modu mixtoan lanean aritu beharko bagenu, Osasun egoerak eta Osasun agintariak adierazi bezala antolatu beharko ginatke. Ezin aurreikus daitekeenez zein izango den etorriko den eszenatoki zehatza, hainbat aukera planifikatzea toka dakiguke:

- Ikasle zaugarrienak modu presentzialean artatzea eta gainontzeko ikasleak etxetik aritzea: kasu honetan, ikasgai bakoitzaren planifikazioa, 3. eszenatokirako berdina izan beharko luke, eta ahalik eta modu egokienean artatuko da ikastetxean dagoen ikaslegoa.



- Ikasle batzuk modu presentzialean eta beste batzuk on-line aritzea tokatuko balitz, zein kopurutaz ari garen ezin dugunez aurrikusi, kasuan kasuko antolaketa egin beharko genuke.
- Gelaka egingo da ikastetxean eta etxean egongo diren ikasleen banaketa. Adibidez, gelaren erdia etxean eta beste erdia eskolan.
- Gerta daiteke ikasle batek aldi baterako konfinatuta egon beharra, bere ikaskideak klase presentzialekin jarraitzen duten bitartean. Kasu honetan, arreta telematikoki emango zaio, ikaskuntza prozesua etxetik jarraitu dezan.
- Hezkuntza sailak bidalitako dokumentuan (Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra) agertzen den bezala, *“2. edo 3. agertokian egonez gero, eskolako irakasleek ondokoak erregistratu beharko dituzte: egunero planifikatutako atazak, gauzatu direnak, eskolaren modalitatea eta eskaini den irakaskuntzari buruzko informazioa eskaini dezaketen beste datu batzuk. Eskolako zuzendaritzak erregistro horiek gainbegiratu eta dagokion jarraipena egin beharko du eskolako ikasleek hezkuntzarako duten eskubidea bermatze aldera”*. Honetarako GOOGLE DRIVE eta GOOGLE-CLASSROOM erabiliko ditugu.
- Mintegi buruaren ardura izango da **mintegikideen arteko koordinazioa** ematen dela ziurtatzea eta mintegi bileren asteroko aktetan isladatuko da. Batzorde Pedagogikoan horren jarraipena egingo da.

### 3. AGERTOKIA:

Irakaskuntza prozesua erabat etxetik balitz, aurreko ikasturteko praktika onak aprobetxatu, eta puntu ahulak hobetzen saiatu beharko genuke.

Aurretiaz esan bezala, honako ideia hauek kontuan izan beharko dira:

- Curriculumaren funtsezko alderdiak aztertu beharko dira eta beharrezkoak diren egokitzapenak egingo dira programazioetan.
- Programazioetan definitutako ebaluazio irizpide eta adierazleak berrikusiko dira, eta, behar denean, egokitu egin beharko dira.
- Ikasleen on-line ikasteko baliabide, gaitasun eta modu egokiak bermatu beharko dira. Zailtasunak somatzen diren kasuetan, irakasleak, tutoreak edo zuzendaritzak irtenbidea bilatuko dio egoerari.
- Irakasleen artean, adostu egin beharko da nola bideratu behar den ikasleen ikaskuntza prozesua eta honen jarraipena.
- Ikasgai guztietan Classroom bat izango dugunez, ikasgai guztiak modu ordenatuan jarraitu ahal izango dituzte.

- Ikastetxean daukaten ordutegia jarraituko dugu beraiekin. Ordutegi horretan izango ditugu lanean, beti ere, saio horretan lantzeko moduko jarduerak aurrera eramanez. Ikasle hauekin gutxienez saioaren hasieran konektatuko gara, denak hor daudela ziurtatuko dugu (gainerakoan hutsegitea jarriko zaie), saio horretarako lana azalduko zaie eta irakasleak ikasleen zalantzak saioan zehar argituko ditu.
- Ikasleen arteko kooperazioa sustatuko duten estrategiak planifikatu beharko ditugu.
- Hezkuntza sailak bidalitako dokumentuan (Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan koronabirusaren aurrean zer-nola jarduteko protokolo orokorra) agertzen den bezala, *“2. edo 3. agertokian egonez gero, eskolako irakasleek ondokoak erregistratu beharko dituzte: egunero planifikatutako atazak, gauzatu direnak, eskolaren modalitatea eta eskaini den irakaskuntzari buruzko informazioa eskaini dezaketen beste datu batzuk. Eskolako zuzendaritzak erregistro horiek gainbegiratu eta dagokion jarraipena egin beharko du eskolako ikasleek hezkuntzarako duten eskubidea bermatze aldera”*. Honetarako Google Drive eta Google classroom erabiliko ditugu.
- Mintegi buruaren ardura izango da **mintegikideen arteko koordinazioa** ematen dela ziurtatzea eta mintegi bileren asteroko aktetan isladatuko da. Batzorde Pedagogikoan horren jarraipena egingo da.

Irakaskuntza prozesu honetan, ezinbestekoa izango da eragile ezberdinen artean konfiantzazko harremanak eraikitzea. Erabakiak hartu beharko dira eta kasu askotan, interes ezberdinak orekatu beharko dira. Kalitatezko komunikazio eta gardentasunak eragile guztien konpromisoa indartuko dute.

### **2.3. GAITASUN SOZIO-EMOZIONALAK ETA TALDE KOHESIOA.**

Orientazio mintegiak tutoretza saioetan aurrera eramateko hainbat jarduera prestatu ditu.

### **2.4. HEZKUNTZA PREMIA ESPEZIFIKOAK DITUZTEN IKASLEAK.**

- Orientazio Mintegiaren profesionalak (Orientatzaileak, PT irakasleak) koordinatuko dira eta ikasle hauen jarraipena egingo dute alderdi sozioemozionalean eta akademikoan izan ditzaketen beharrei erantzuna bermatze aldera.
- Ikasle hauen Hezkuntza Indartzeko Banakako Planean jasota egongo dira premia espezifiko hauek gainditzeko behar dituzten egokitzapenak.

### **2.5. EUSKARA INDARTZEA.**



Covid-19ak ikasle batzuen hizkuntza gaitasunean izan duen eragin kaltegarria hobetze aldera, neurri hauek hartuko dira:

- Hauspoan errefortzuak eskainiko dira.
- Berritzeguneak hizkuntza komunikazio gaitasuna lantzeko emandako orientabideak kontuan hartuko ditugu.
- HIPI laguntza eskainiko da.

### 3. TUTORETZA ETA HARREMANAK

- Orientazio mintegiak bere programazioan tutoretza saiotan aurrera eramateko jarduerak prestatu ditu gai hauen inguruan:
  - Ikasleen betebeharrak egoera berri honetan: guztion ongizatea babesteko ezarri diren arauak errespetatzearen garrantzia (maskara jantzi, eskuak garbitu, garbitasunerako materiala zaindu, distantzia mantendu, sarrera egokia erabili...).
  - Ikasleen arteko kooperazioa sustatzeko estrategiak (online eszenatokian ere).
  - Talde kohesiorako dinamikak.
  - Empatia lantzeko eta sentimenduak adierazteko dinamikak.
  - Estresaren kontrola.

### 4. OSASUN MENTALA ETA ONGIZATEA.

- Tutoreak arreta berezia jarriko dio arazo emozionalak detektatzeari eta familiarekin harremanetan jarriko da informazioa kontrastatzeko eta ahal duen neurrian, behar den kasuetan, laguntza ezberdinei buruzko informazioa emango die.

### 5. ESKOLA ZERBITZUAK.

- Jangela zerbitzua:
  - Jantokian distantzia bermatu ahal izango dugu ikasle gutxi geratzen direlako bazkaltzen.
  - Ikasleekin eskuak garbitzeko protokoloa landuko da eta informazio grafikoa jarri da.
  - Ikasleek jangelan dauden bitartean ondoko arau hauek bete beharko dituzte (**jangelako araudia begiratu**).



## 6. LAGUNTZA ETA JARRAIPEN BATZORDEA

Salbuespenezko ikasturte hasiera honetan jardueraren garapenerako laguntza eta jarraipen batzordea ezarriko da ikastetxean, honako hauek eratuko dutelarik:

JARRAIPEN BATZORDEA	
ZUZENDARIA	Edurne Burgoa
LAN ARRISKUEN ARDURADUNA COVID-19 aurrean erreferentziako arduraduna	Maite Zabarte
BERRITZEGUNEKO ERREFERENTEA	Amaia Agirre
IKUSKARIA	Javier Jiménez
OOGko KIDE ORDEZKARIA	Oinatze Silbeti Azkue



